

Ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak

230407-1 jarduera

IKERKETA

Parametro estatistikoak: kuartilak

Zailtasuna: III.

Irakurri arreta handiz taulan ageri diren datuak. Erdi mailako heziketa zikloetako ikasle kopurua zehazten dute, espezialitateen arabera bereizita.

Erdi mailako lanbide heziketako ikasleak, adarraren eta sexuaren arabera.
2007/08

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Euskal AE	10.266	6.141	4.125
Nekazaritzari lotutako jarduerak	130	92	38
Itsasoari eta arrantzari lotutako jarduerak	76	75	1
Fabrikazio mekanikoa	1.653	1.551	102
Elektrizitatea eta elektronika	1.165	1.121	44
Kimika	59	21	38
Eraikuntza eta obra zibila	92	84	8
Zura eta altzarigintza	231	212	19
Ostalaritza eta turismoa	585	351	234
Osasuna	1.370	94	1.276
Arte grafikoak	185	90	95
Ibilgailu autopropulsatuen mantentzea	878	859	19
Komunikazioa, irudia eta soinua	73	33	40
Irudi pertsonala	823	7	816
Jarduera fisikoak eta kirol jarduerak	110	77	33
Administrazioa	985	205	780
Gizarte, kultura eta erkidegorako zerbitzuak	239	21	218
Merkataritza eta marketina	320	91	229
Informatika	527	421	106
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	-	-	-
Elikagaien industriak	10	6	4
ekoizpenaren mantentzea eta hari lotutako zerbitzuak	755	730	25

❖ Kalkula itzazu hiru banaketa horietako bakoitzaren kuartilak.

.....

.....

.....

.....

❖ Gero ordenatu espezialitateak kuartilen arabera.

.....

.....

.....

.....

❖ Azaldu gai hori, ondokoak aipatuz:

a) Zein da ikasle guztiek gehien edo gutxien eskatzen duten espezialitatea.

.....

.....

b) Zein dira gizonek gehien edo gutxien eskatzen dituzten espezialitateak.

.....

.....

c) Zein dira emakumeek gehien edo gutxien eskatzen dituzten espezialitateak.

.....

.....

d) Hiru sailkapenen artean dauden ezberdintasunak.

.....

.....

Ikasle guztien gaineko datuak aztertuz gero ondokoak ikusiko ditugu:

- + Gehien eskatzen den espezialitatea: osasunarena da; 1.370 ikasle ditu.
- + Gutxien eskatzen dena: elikagaien industriena da; 10 ikasle ditu.
- + Bien arteko aldea: $1.370 - 10 = 1.360$
- + Alde hori 4 zatitan banatuz gero: $1.360 / 4 = 340$

- 10 eta $10 + 340$ (350) artean daudenak: nekazaritzari lotutako jarduerak (130); itsasoari eta arrantzari lotutako jarduerak (76); kimika (59); eraikuntza eta obra zibila (92); zura eta altzarigintza (231); arte grafikoak (185); komunikazioa, irudia eta soinua (73); jarduera fisikoak eta kirol jarduerak (110); kultura eta erkidegorako zerbitzuak (239); merkataritza eta marketina (320); elikagaien industriak (10).
- 350 eta $350 + 340$ (690) artean daudenak: ostalaritza eta turismoa (585), informatika (527).
- 690 eta $690 + 340$ (1.030) artean daudenak: ekoizpenaren mantentzea eta hari lotutako zerbitzuak (755); ibilgailu autopropulsatuen mantentzea (878); irudi pertsonala (823) eta administrazioa (985).
- 1.030 eta $1.030 + 340$ (1.370) artean daudenak: fabrikazio mekanikoa (1.653); elektrizitatea eta elektronika (1.165) eta osasuna (1370).

Sailkapen horren bidez ikusten dugu banaketa nahiko heterogeneoa dela, espezialitate askotan ikasle gutxi dagoelako. Lehenengo multzo handi hori alde batera utzita, beste multzoek espezialitate kopuru nahiko antzekoa dute.

❖ Egizu lan berbera gizon eta emakumeen banaketetarako.

.....

.....

.....

.....

❖ Ikusi ikasle guztientzat egin dugunaren antzeko sailkapenik errepikatu den orain ere.

.....

.....

.....

.....

❖ Gizon eta emakumeen datuen artean ezberdintasunik ematen bada? Erantzuna baiezkoa bada, azal itzazu.

.....

.....

.....

.....